

# ESKOLEN GAIA, LAN BUKAEZINA

*Eskolen gaiak gure herrirako duen garrantzia ikusirik, EGIN egunkarian idatziriko gai honi buruzko artikulua guztien bilduma argitaratzea erabaki dut, herritar bakoitzak honi buruzko ondorioak har ditzan. Beraz, 1990ko otsailak 18tik hasi eta 1992ko Martxoaren 12 bitarteko argitaraturiko artikuluek zuzentzen dizkizuet.*

## —1990ko Otsailak 18

**Eskolaren gaia eztabaidatuko du gaurko plenoak**

PNV, EA, PSOE eta EE oposizioko alderdiek batzarraldi berezia egitea eskatu dute, eskolaguneari dagokion Sistema Orokorrean aldakuntza puntualaren onarpen probisional egiteko. Puntu honen lehen onarpena 1990ko uztailaren 19an izan zen. Aipaturiko plenoa, urriaren 2an ospatu zen, hala ere, puntua ez zen onartu oposizioko alderdiak plenora ez zirelako azaldu eta ondorioz gehiago absolutoa ez zelako lortu. Ondorioz, aurreko Alkatetzak eskolen egoeraren berri eman zion Kontseilu Eskolarrari eta honek alderdi guztiei bilerara deitu zien urriaren 8an burutzeko. Oposizioko alderdiek ez ziren bilerara sartu HB bertan zegoelako.

## —1990ko Urriak 20

**Eskolaguneari onarpen probisional eman zen plenoan**

Korporazioak ahobatez onartu zuen probisionalki eskolaldeari dagokion sistema orokorrean planeamenduko arau subsidiarioen aldakuntza puntuala urriak 18an izandako batzarraldi berezian. Honen arabera, eskola zaharrari 972 m. karratu eransten zaizkio berdegune zati bat kenduz.

## —1990ko Azaroak 17

**Udalak eskolaren gaia Diputazioarekin hitzegin zuen**


Mikel Arrizabalaga Lezoko alkatea, Gobernu Batzordeko zenbait kide eta Sartrategi, eskola proiektuaren egilea, Borja Jauregi Gipuzkoako Diputazioko Hirigintza zuzendariarekin elkarriketa-tu ziren azaroaren 13an. Bertan, Gobernu Batzordeak eskolak zabaltzeko arau subsidiarioetan eginiko zenbait aldaketak berri eman zuen. Era berean, eskolen beharra eta presa ezagutarazi zuen.

## —1991ko Otsailak 23

**Guraso Elkarteak eta irakasleak haserre agertu ziren eskolaren proiektuaren atzerapenagatik**

Guraso Elkarteak eta irakasleak haserre azaldu ziren «eskolaren proiektuak jasaten ari duen blokeoa dela eta», prentsaurreko batean. Guraso Elkarteak kide batek azaldu zuenez sei urte daramate erakunde ofizialekin negoziatzen edifikazioak eraikitzeko.

Lehenik, gaur egungo edifikazioa berritzea proposatu zioten, hala ere, berri bat egitea erabaki zuten. Hezkuntza Delegazioak proiektu bat onartu zuen baina Lezoko Udalaren barruko arazoengatik



alde batean utzi zen. Arazo hau alderdi politiko eta gurasoen artean eginiko bilera baten ondorioz soluzionatu zen. Orain berriz, Gasteizko Hirigintza Sailak gobernu aldaketa dela eta, proiektua aurrera ezin dela atera adierazi zuen.

### **—1991ko Martxoak 2**

#### **Udaleko oposizioko alderdiak ez ziren plenora azaldu**

PNV, EA, PSOE eta EEko zinegotziak ez ziren otsailak 28an eginiko plenora azaldu. Bertan, alderdi hauek aurkezturiko mozio bat onartu zuen HB-k, hau da, eskolaguneari dagokion aldakuntza puntualaren anexoa. Mozioan alderdiek, «Guillermo de Lazon kaletik pasako litzatekeen eta eskolagunera eta sistema orokorrera eramango lukeen sarrera bat jartzea» eskatzen da alde batetik, eta bestetik «aldaketaren barruan eskolaguneari beteko duen berdegunea egokituko lukeen zati bat agertzea».

### **—1991ko Martxoak 17**

#### **Gasteizko Gobernuak eskolaguneari zabalkuntza onartu du**

Gasteizko Gobernuak Hirigintza Sailak eskolaguneari zabalkuntza eta aldakuntza onartu zuen. Onarpena Lezoko alkatea den Mikel Arrizabalaga, Satrustegi eskolaren proiektuaren egilea eta eskoletako arduradunek Gasteizen izandako bilera baten ondoren eman zen. Udalak aurrera eramandako proiektua eskola eta kirol eraikuntzak egiteko helburua du.

### **—1991ko Maiatzak 16**

#### **Eskolaguneari dagokion testu birmoldatuaren onarpena eztabaidatuko da plenoan**

Gaur izango den pleno berezian Lezoko eskolagunari dagokion aldakuntza puntualari buruzko testu birmoldatuaren onarpena eztabaidatuko da. Testu horretan azaltzen denez, 1943 m. karrautuko berdeguneari, 1.440 m. karrautuko berdegunea eransten zaizkio, denetara 3.383 m. karrautuko gelditzen direlarik eskola inguruko berdegune bezela.

### **—1992ko Otsailak 22**

#### **Kontseilu Eskolarra eskola**

### **berriak eraikiko ez direnaren beldur da**

Kontseilu Eskolarra, eskola berriak eraikiko ez direnaren beldur da, proiektu honen inguruan PNV, EA, PSOE eta EE alderdiek osatzen duten Gobernu Taldeak eragindako atzerapenak direla eta. Prentsaurrekoan, eskola berrien proiektua alderdi guztiak onartu zutela aurreko legealdian jakinarazi zen «ondoren Gobernu Taldearen aldaketarekin «zenbait oztopo» jartzen hasi ziren».

Egoera honekin Hezkuntz Delegazioarekin harremanetan jarri zirela zioen «eta proiektua Udalaren lizentzi obren esku dagoela esan ziguten. Une berean, Hezkuntz Delegazioa, Udala eta Kontseilu Eskolarraren arteko bilera egitea eskatu genuen. Urtarrilak 14ean ospaturiko bileran gure partaidetza galera zuten».

Ondorengo pausua Hezkuntz Delegazioa eta Udalarekin harremanetan jartzeari izan zen bakoitzak bere aldetik «Hezkuntz Delegazioak ez du ezer esatekorik. Udalak zer adierazten digu: ez dutela proiektua gustokoa». Elkarriketa bide guztiak agortu nahiean Udaleko alderdi politiko guztiei bilera batera deitzen die, HB bakarrik azaltzen delarik.

### **—1992ko Otsailak 28**

#### **Eskoletako arduradunak plenora azaldu ziren beraien jarrera jakin dezaten**

Eskoletako ikasle, irakasle eta gurasoak Udal plenora azaldu ziren korporazioak eskola berrien proiektuari buruzko bere jarrera jakin dezan. Bertan mozio bat aurkeztu zuten zera eskatuz «proiektu hori zein egoeratan dagoen zehatz-mehatz eta sakonki adieraztea eta hirutikako batzorde bat eratzea: guraso, irakasle eta Udalaren artean, eraikuntza berriaren proiektuaz egiten diren kudeaketan jarraipena egin dezagun». Go-

bernu Taldeak proiektu berria egiteko nahia azaldu zuen eta bestetik, guraso eta irakasleak, onartuta dagoen proiektua aurrera eramatea eskatu zuten. Ondorioz, martxoaren 10ean bilera bat egiteko gelditu ziren inplikaturiko talde guztiak.

### **—1992ko Martxoak 14**

#### **Gobernu Batzordeko alderki politikoek eskolaren proiektu berri bat aurkeztu zuten**

EA, PSE-PSOE, PNV eta EE alderdiek osaturiko Gobernu Taldeak eskoletako guraso eta irakasleen aurrean eskola proiektu berri bat aurrera eramatea eta egutegi bat aurkezteko konpromezua hartu duela ezagutzera eman zuten prentsa ohar baten bidez.

Bertan, Gobernu Taldeak dionez «Sistema General 1 delakoaren urbanizazio proiektuaren aurrerapena aurkeztu genuen bileran». Proiektu berri honek «abantai garrantzitsuak ditu. Eskolaurrea eta OHOk edifizioez gain bestelako zerbitzuak izango dira». Era berean beraien ustetan «Hezkuntz Delegazioa eta Diputazioarekin gestioak egiten hasi gara, eta beraiek tramiteak lehen bait lehen egingo dituztenaren nahia azaldu ziguten».

#### **Gurasoentzat lau urtetako atzerapena suposatzen du.**

Guraso Elkarteko arduradunek eskolen proiektu berriaren aurkako jarrera azaldu zuten, Gobernu Taldeak aurkeztutako proiektuaren tramitazioak lau urtetako atzerapena suposatzen duelako.

#### **Irakasleak kezkatuak.**

Irakasleak proiektu berrien aurrean beraien kezka azaldu zuten «Udalak ez bait digu epe konkretua eman». Beraientzat eskolak egitea beharrezkoa da.

#### **HB: «Ezinezkoa da eskolak hain**

*epe motzean egitea».*

Herri Batasunarentzat ezinezkoa da Gobernu Taldeak aurkezturiko proiektu berria hain epe motzean gauzatzea «Gobernu Taldearen promesaren oinarria proiektu berria gauzatzeko Delegazioa eta Diputazioaren hitza besterik ez da». HB-ren ustez «Delegazioaren proiektua atzera botatzea eta paralizatzea da beraien asmoa».

## **—1992ko Martxoak 17**

### **Guraso eta irakasle gehienak gaur egungo proiektuaren alde agertu ziren**

Guraso eta irakasle gehienak oraingo proiektuaren alde agertu ziren beraien artean egindako bilera ondoren. Era berean, Gobernu Taldeak aurkezturiko proiektu berria gaitzetsi zuten, izan ere, «gauzatzeko tramite burokratikoak behar dituen bozeto bat da, eta honek atzerapenak suposatzen ditu». Alderdi politiko guztiei bilera batera deitzea erabaki zen gaiaren garrantzia kontutan har ditzaten eta jarrera aldatzeko asmoz. Guraso eta irakasleen eskaera atzera botako balute, mobilizazioak egiteko prest agertu ziren.

## **—1992ko Martxoak 19**

### **HB-k eskolen proiektua aurreko legealdian gauzatatutakoa dela adierazi du**

Lezoko Herri Batasunak eskola berrien proiektua 1987-91 legealdian gauzatatutakoa dela adierazi du, honen inguruan aurreko legealditik hona eman diren pauso guztiak jakitera ematen duen bitartean.

Horrela, 1987. urtean HBk alkatetza lortu zuenean, Alkatetzatik partehartzearen bideak zabaltzeko ziren inplikaturiko agente guztiei. 1990.eko uztaillean lehenik, eta 1991.eko ekainean behin

betirako, Gasteizko Gobernuari eskolagune izango zen lurzorua lagapena egitea aprobaten da ahobatez alderdi politiko guztien onespenez. «Hauteskunde garaia igaro berria da, eta auzia Alkatetza hartzen duen Gobernu Talde berriaren eskuetan geratzen da. Bitarte honetan Hezkuntza Delegaziotik proiektu bukatua Udaletxera bidaltzen dute» dio HB-k.

1991.eko ekainean, EA-PNV-PSOE-EE alderdiek alkatetza hartzen dute, eta 9 hilabetez prozesuak geldialdia ezagutzen du.

Martxoaren 10ean ospatutako bilera horretan garbi azaldu ziren zeintzuk ziren eskola berriak egiteko pausoak: obra lizentzia ematearen inguruko baldintzak betetzea, eta urbanizazio plana aprobatezea. Gauzak honela, Herri Batasunak, «Gobernu Taldeak jendearen asmo onak engainatzeko erabiltzen dituen argumento faltsoak eta urtetan erakutsitako jokaera maltzurra» salatzen du.

Salagarria da alderdi honentzat «urte hauetan eskolak egitearen aldeko inongo borondate politikorik erakutsi ez dutenek, orainarte urtetan zehar egindako lana, atzera bota nahi izatea, hiru urte eduki dituztenean proiektuaren inguruan lan egiteko».

Azkenik, «HB-k garbi utzi nahi du Hezkuntza Ordezkaritzak egin duen proiektua defendatzen dugula, berau, herriko sektore desberdinen partaidetzarekin bultzatu izan delako, eta martxoaren 10ean ospaturiko bileran Iñake Urrestarazu alkatesak aitortu zuenarekin bat gaudelako: «... irteera azkarrena Hezkuntza Delegazioaren proiektua da».

## **—1992ko Apirilak 2**

### **Gurasoen Asanblada eta irakasleek mobilizazioei ekingo diete**

Eskoletako Gurasoen Asanblada eta irakasleen ordezkariak mobilizazioei ekitea erabaki dutela adierazi zuten prentsaurrekoan, eskolaren proiektuaren paralizazioa dela eta. Era berean Gobernu Taldearekin izandako kontaktuen berri eman zuten «proiektu bat egiteko eskubidea dutela jakinarazi ziguten eta alderdi guztien arteko erabakia haustea ez zela serioa esan ziguten».

### **—1992ko Apirilak 5**

#### **Herriak «eskola berriak orain» eraikitzea eskatu zuen manifestazioan**

Hirurehun bat pertsonak parte hartu zuten eskola berriak eraikitzeke eginiko manifestazioan. Gurasoen Asanblada eta irakasleek antolaturiko manifestazioan, «Eskola berriak orain» zioten bi pankarta zeramatzaten. Mobilizazio honetaz gain, eskolak berehala eraikitzen hasteko eskaera bat aurkeztuko dute Udalan datorren hilaren 9ko bileran eta honekin batera herritarren firmak jasoko dituzten agiriak eramango dituzte.

### **—1992ko Apirilak 15**

#### **Eskoletako Kontseilu Eskolarrak Gobernu Taldeak erabili eta engainatu diola adierazi du**

Kontseilu Eskolarreko kideek bere haserrea agertu du Udaleko Gobernu Taldeak eskolen gaia eramandako eragatik. Beraien ustez «gu erabili eta engainatu gaitu». Aurreko legealdian, eskolaren talde honek dei egin zien kontzientzu batera iristeko asmoz, «eta horrela uste izan genuen proiektua onartu zenuteanean, aldi berean bertan behera joan diren itxaropen guztiak sortuz». «Zergatik onartu zenuten proiektua, orain ezezaguna duzutela esaten duzuenean?» diote Kontseilu Eskolarreko kideek,

«behar bada atzetik udal hauteskondeak zetozelako».

Orain Udaletxea beraien esku dagoeanean, «ahobatez eta eskolaren talde honetik mesprezu osoarekin proiektua paralizatzen duzue «zuen» proiektua ateratzeko» gaineratzen dute.

### **—1992ko Apirilak 30**

#### **Eskolen kokapenaren aldaketa eman zen plenoan**

Eskolen kokapenaren aldaketa eman zen pleno berezian. Honen arabera onartutako proiektuan 9.000 m karratu inguru okupatzen bazituen aldaketa honekin eskolagunea 3.000 m karratura pasatzen da.

Irakasle batek gai honetan elkarrizketa eta bilera eza azpimarratu zuen. Guraso batek berriz Gobernu Taldearen jarrera intransigentetzat hartu zuen herriari bizkarra ematen ari zirela gaineratuz.

HB orain arte kontsentsuatutako proiektuaren alde azaldu zen guraso eta irakasleekin batera «eta zuen inposaketa ez dugulako onartzen eta hori salatu nahi dugulako joku zikin honetan parterik ez hartzea erabaki dugu» gaineratu zuten.

### **—1992ko Maiatzak 4**

#### **Irakaslegoak dagoen proiektu bakarrari berehala ekitea exijitzen dio Udalari**

Irakaslegoak eskolaren eraikuntza berriaren aurrean, dagoen proiektu bakarrari berehala ekitea exijitzen diote Udalari, «alderdikeriak alde batera utziz eta hezkuntza eta gizarte arrazoietan sartuz».

Beraien esanetan «lehenik eta behin garbi utzi nahi dugu eraikuntza berria egiteko une honetan proiektu bakarra dagoela».



Irakaslegoari ez zaio batere serioa eta arduraduna iruditzen proiektuaren tramiteak iraun duen denboran oztoporik ez jartzea.

Udalak ez badio lan lizentzia ematen dagoen proiektu bakarrari, Lezoko ikaslegoak derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasketak herrian bertan egiteko aukerak gero eta urrunago egongo lirartekeela diote eskoletako irakasleak.

### **—1992ko maiatzak 10**

#### **Hezikintzako kideak Kontseilu Eskolarretik irten ziren Pello Garbizu azaldu zelako**

Hezikintza Guraso Elkarteko kideak Kontseilu Eskolarretik irten ziren, Pello Garbizu Udaleko ordezkaria bertara azaldu zelako. Bertan, gurasoak beraiei engainatu eta erabili diotela esan zioten Garbizuri eta ez bazen irtetzen bileratik, beraiek kanporatuko zirela adierazi zuten.

Honen aurrean, dekretoz eskubidea zuenez bileran egoteko, ez zela irtengo esan zuen Garbizuk. Hau dela eta gurasoak gelatik irten ziren eta ondorioz

Kontseilu Eskolarra ez zen ospatu, gurasoek jakinerazi zutenez.

### **—1992ko ekainak 6**

#### **Guraso Elkarteko eta HB-ko zinegotziak eskolari buruzko alegazioak aurkeztu zituzten**

Eskoletako Guraso Elkarteko eta HB-ko zinegotziak 1. Sistema Orokorreko eskolagunearen aldaketa puntualari dagokion alegazioak aurkeztu zituzten Udaletxean. Bertan, 1991ko ekainaren 4ean onartutako proiektua mantentzea eskatzen dute. Guraso Elkartearen ustetan eskolagune erdira murriztu da eta «parke eta kirolgune publikoez inguratuturik agertzen da». Beraien alegaziotan zenbait aldaketa proposatzen dituzte, hala nola, eskolagunearen barruan baikoitzak aisialdirako guneak bananduak egotea eta herriko autobusak bertara iristea. Gainera ikasleak polikiroldegiko eraikuntzak erabiltzea behartuko litzaiteke Udalaren proiektuarekin eta auditorioari dagokionez, erabilpen publikoa izan beharko luke, eskolagunean sarturik bait dago.

Herri Batasunarentzat aldiz, eskolaguneko arau subsidiarioen aldaketa kriterio politiko baten aldaketagatik izan da. Beraientzat aldaketak sendotasun legala eta moral eza du «aldaketak Diputazioaren hitza duela diotelako. Eta gainera ez dago inongo estudiorik».

HB-k dioenez Gobernu Taldeak gai honi buruz emandako politika ez da herriaren partehartzearen aldekoa izan eta auditorioari buruz positiboa iruditu zaio ideia, hala ere, «ez dugu uste eskolaguneari sartu beharko litzatekeenik». Eskolaguneari dagokionez, «zaila iruditzen zaigu aurrez proiektaturiko 9.990 m. karratuko eskolagunea, orain 3.565 m. karratukoa izatea».

### **—1992ko ekainak 11** **Ekoloji Taldeak Zubitxo erreka eta hazitokiaren inguruko alegazioak aurkeztu zituen**

Ekoloji Taldeak bi alegazio aurkeztu zituen Udalan eskola proiektorearen inguruan Zubitxo erreka eta hazitokiari buruzkoak. Alegazioan erreka hau herrian

dugun zigortuena dela diote eta beharrezkotzat ematen dute herrigunetik pasatzen den erreka hau txukun eta bizirik mantentzea, «eskola berriaren proiektok zati haundi batean estali eta basteen kanalizatu egiten da erreka bazterrak txikituz».

Bigarren alegazioari dagokionez proiektu honetan Guillermo de Lazon kalea Txerrimuño ondoko kalearekin lotu nahi dute herriko hazitokiaren erdi erditik pasaz. Proiektok horrela burutu ezkerreko hazitoki hiruki txiki batean gertatuko litzateke beraien esanetan.

Ekoloji Taldearentzat hazitokiak bi helburu nagusi betetzen ditu. Bata ekolojiko eta bestea heziketarena. Lehenengoari buruz «bertan taldekoek boluntarioki zuhaitzak erein eta haunditzean herrian eta Jaizkibelen jartzen dituzte». Heziketaren helburuari dagokionez, bai heldu bai gazteek heziketa bat behar dutela naturarekiko.

**GARBIÑE OLAIZOLA,  
EGIN**

